



Stella Arauzo eta Adrian Gallia dira figura nagusiak. Luis JAUREGALIZO | ARGAZKI PRESS

Gadesen nortasuna eramango dute Arriagara bere legatua defendatzen duten dantzariak

Antonio Gades konpainia «Carmen» lanarekin Bilbon izango da gaur, eta larunbata bitartean. Izan ere, 2003an zendutako dantzari handiak pieza hori estreinatu zuenetik hogeita bost urte beteko dira aurten.

Izaskun LABEAGA | BILBO

Prosper Merimee eta Georges Bizeten lanetan oinarritutako «Carmen» aurkeztu zuten duela 25 urte Antonio Gades koreografoa eta Carlos Saura zinema zuzendariak. Parisen plazaratu zuten estraineako aldir, arrakasta handiz; eta hala, hamarkada bate mundu osoko antzetzokietara eramateko aukera izan zuten. Bizet, Gades, Solera eta Freiren musika du «Carmen» honek. Gadesek berak dantzatzen zuten On Joseren paperean eta Cristina Hoyos izan zuten bidaia lagun, protagonista nagusiari bizi emanaz, bere konpainia sortzea erabaki zuen arte. Orduan, Stella Arauzok ordezkatu zuen Hoyos, eta gaur egun bera da antzezlaren lehenengo figura eta zuzendari artistikoa.

Stella Arauzo nerabe zen, artean, Antonio Gadesen konpainian iritsi zen garaian. «Odol ez-teiak» lan aski ezagunean egin zuen jendaurreko debuta.

Gadesek moldatu zuen «Carmen» lanak askatasuna biziki maita duen emakumea aurkeztu du, eta ez biktima bat, beste zenbait bertsiok egin duten moduan. Bere bizitzaren norabidea erabaki nahi duen andrea da, eta bere jardueraren ondorioak onartzen dituen. Carmen in-

dartsua irudikatu zuen sortzaile ezkerriarrak.

Arriaga Antzokian aurkeztuko den ikuskizunak Gadesek erantsi zizkion espiritu eta jarraibideak bere horretan gordetzen ditu. Stella Arauzo arduratu da antzetzoki gainean hark sentitzen zuena berriz helarazten. Dominique You zuzendari teknikoaren laguntza izan du horretarako, izan ere, Parisko estreinaldian argiztapenaren arduraduna izan zena.

Hamazazpi dantzari

Oholtza gainean, Arauzo bera izango da Carmen, eta bere alboan beste 17 dantzari izango ditu. Adrian Gallari egokitu zaio On Joseren papera jokatzeko. Ibilbide nabarmena egin du flamenko dantzari gisa eta Gadesek «taula gainean sortzen zituen sentsazioak» besterengana

natzeko lan egin du. «Gogorra izan da, baina Stellari esker lortu dut. Taularatzeko zaila, baina ulertzeko erraza: hori da Antonio Gades», bere oinordekoaren hitzetan. Primitivo Dazak toretzailearena egingo du eta Joaquín Mulero Carmenen senarrena.

Zuzeneko musika izango dute lagun dantzariak: bi gitarra jotzaile eta lau abeslari.

«Gadesen estetika, bere zintzotasuna, bere duintasuna eta dantza ikusteko modua jasotzen ditu bere muinean muntaia honen», Arauzoren esanetan.

Arriaga Antzokian ikusgai izango den «Carmen», «duela 25 urteko «Carmen» da, baina XXI. mendean», azaldu zuen, «Carmen» bizirik dagoelako.

Antonio Gades konpainia, haren obra bizirik iraunarazteko sortu zen. Lehengo konpainiako dantzariak eta interprete berriez osatuta dago: 2005ean Veronan (Italia) egin zuten lehen emanaldia, «Carmen» bera, hain zuzen, eta gorespenak izan ziren nagusi. Hil aurretik Fundazio-bat jarri zuten abian benetako izena Antonio Esteve Rodenas zuen dantzari handiak, bere legatua babesteko. Haren alabak, Maria Estevez aktoreak zuzentzen du fundazioa, eta konpainia sortzea izan du lehen eginkizuna.

Fitxa

Lana: «Carmen».
Zuzendari artistikoa: Stella Arauzo.
Zuzendari teknikoa: Dominique You.
Dantzariak: Stella Arauzo (Carmen), Adrian Gallia (On Jose), Primitivo Daza (Toretzaile), Joaquín Mulero (Senarra).
Tokia: Arriaga Antzokia.
Data: Otsailak 21, 22 eta 23.
Ordua: 20.00.

«Gizarte sortzailea» izeneko DVDa plazaratu du MIK zentroak Tabakalera

GARA | DONOSTIA

Mondragon Innovation and Knowledge (MIK) MCCren ikerketa zentroak «Gizarte Sortzailea» izeneko DVDa aurkeztu zuen atzo. Ikus-entzunezko bilduma dokumentala da, «Gizarte Sortzailea: Egungo Gizarte Sortzailea Eraikiz», 2007. urteko Udako Eskolan bizi izandako esperientzietan oinarritua. «Gizarte Sortzailea» izeneko ikastaroa EHUko Udako Ikastaroen barnean egin zen.

Aurkezpena egiteko, MIK zentroak Tabakalera gunea aukeratu zuen agertokitzat, etorkizunean «sormenaren fabrika» izango den hori, DVDan aldarrikatzen den gaiaren gune aktibo garrantzitsuena. Ekitaldi horretan parte hartu zuten MIK zentroko Proiektu zuzendaria den Igor Calzadak, MIK zentroko zuzendari nagusi eta Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoko Lander Belokik, eta Tabakalera guneko zuzendari Joxean Muñozek.

Ikus-entzunezko horrekin, MIK zentroak amaiera eman dio gaikako trilogia sekuentzialaren zikloari. 2005ean hasi zuten, «Lanaren Etorkizuna» Udako Eskolaren bidez. 2006an, «Kapital Sortzailea» izan zen jarraipena; eta, azkenik, «Gizarte Sortzailea» ren txanda izan da.

Azken ikastaroaren armoa zen Euskal Gizarte Sortzailea eraikitzeko gakoak aztertzea. DVD horrek Udako Eskolako

hirugarren edizioko une aipagarrienak biltzen ditu. Hirugarren edizio horretan, alor desberdinetako (arte, kultura, teknologia, enpresa, gizarte, zientzia...) hainbat adituk parte hartu zuen, tokiko eta nazioarteko eskandinarrek, esaterako. Hiru egunez hiru gai jorratu zituzten: «Gizarte Sortzailea»; «Arte / Zientzia / Teknologia / Gizarte»; eta «Euskal Hiria».

Ondorio nagusia honako hau izan zen: «Ekonomia, gizarte, politika, kultura edota hezkuntza alorreko ekintzak lehenbailehen proposatzeko beharra dago, Euskal Hiria = Euskal Gizarte Sortzailea, irekia, plurala, modernoa eta kosmopolita sortzeko».

Izeneko hizlariak

«Gizarte Sortzailea» saioan parte hartu zutenak hauek dira: Bernardo Atxaga; Jyri Engeström (Nokia eta Google); Joxean Muñoz (Tabakalera); Paddy Woodworth (idazle irlandarra); Kaos Pilot (Danimarka); FACT (Erresuma Batua); ZKM (Alemania); University of Utrecht (Hollandia); eta Gaitezen Ekimenerako Kabineta (Extremadura), besteak beste.

MIK enpresa-kudeaketa aurreratu ikerketa zentroa da, zehazki, Berrikuntza arlokoa. MCC Fundazioak, LKS, AIC, Ikerlan eta Mondragon Unibertsitateak sortu zuten, 2001. urtean, era guztietako enpresa, erakunde eta instituzioen lehiakortasuna eta garapena sustatzeko.



Tabakalera egin zuten aurkezpena. GARA